

EGUN GOGOANGARRIAK

GOGOANGARRIAK, euskaldunak beñere aztuko ez ditunak, 1876 garren urteko uztailleko egunak izan ziran.

Anai-guda ikaragarria euskal lurretan erabili gendun; kalte aundi-yak, ezin esan alakoak izan genitun; gizon illak eta elbarrituak ezin konta ala ziran; erre zituzten baserri ugariak, lurrak chetu, ontasun guziyak galdu; ta guda amaitu zanian esan leike Euskal erria almenik, indarrrik batere gabe gelditzen zala. Guztiz galdua, oso ondatua arkitzen zala gauza jakiña da.

Pakearen biarra zeukan aultasunak botatzeko, piska bat pizkortzen asteko.

Batian ta bestian guda bizian ibilli ziranak, beren guraso errukitzuen gana biltzen ziran. Pakiaren far atsegiñik etzan ikusten ordia. Lertuak, ondatuak bai zeuden, ezertarako kernenik gabe.

¿Eta zer gertatu zan orduan?

Orduan ebatzi, lapurtu ziozkaten Euskal erriari, bere asaben gandik jasotako eskubide betikoak; orduan galdu zuen Euskal erriak biziya bera baño geyago maite zuben bere jabetasuna.

Biziya bera baño maitiago zituztela euskaldunak beren jabetasuna, beren eskubideak esan degu; ta, ¿nola lapurtzen laga zioten? esan leza-kenorbaitek.

Bañan guk erantzungo diogu : ¿euskaldunak, garai artan, bizirik bai altzeukan bade? ¿Esan ez degu len ere, almenik gabe, indarrrik gabe geldituzala?

Gure kaltea nai zunak, bazekiyen noiz eta nola kalte ori egin.

Galduena, ondatuenn, euskalduna ezertarako kemenik gabe zegon garayaaukeratu zuben.

Ezin ezer egin zezakian orduan euskaldunak bere eskubideak gordetzeko, ta galdu zituben.

Bañan galdutziakin bat, asmo sendo ta biziya artu zuben, galdutako eskubide oyek bereganatzeko alik eta azkarrena; onetarako alegin guziyak egiñik une guziyetan.

Berrogei urte igaro dira ordu ezkeru, baña berrogei utte oyetan ez da aztu beñere euskalduna, egin zioten zitalkeriaz.

Urtero, egunero, orduro, oroitu da kalte ikaragarri artaz, eta asieran artutako asmoa berritu du une guzietan, geruago ta indarzuago, geruago ta sutsuago.

Orra zergatik berrogei urtiak igaro ondorian arkitzen dan euskalduna lenbiziko egunian baño gogotsuago, len baño indar eta kemen geyagorekin eta zale biziyagoarekin.

Ongi agertu da au, Euskal erriko diputazio chit goituak galdutako eskubideak gureganatzeko asmoa artu dutenian.

Itz erdi bat naikua izan da, uri guzietatik abotz eta irrintzi gozoakin chaloka ekiteko asmo zuzen oyen alde.

Itz erdi bat, eta onekin naikua du euskaldunak itz osoa osatzeko. Badaki nora goazen; igarri du zer lan dan, orain ekin zayon ori; ta ez du geyago jakin nai.

¡Aurrera! diote eztarri guziyak; eta aurrera onek badakigu «atzer» esan nai dubela. Euskaldunak «aurrera» dionian jakiña da «atzer» egin nai dubela; bere eskubide ta ezin aztutako jabetasuna galdu zun garai artara.

Lenago zan bezela, aurrera ere izan nai du euskaldunak, eta orretarako «aurrera» ta «atzer» lotu nai ditu korapillo senduarekin.

Tarteko berrogei urte zorigaizloko oyek, morroi egin nai ginduzten denbora atsekabe oyek baztartu ta azturik, izan ez balira bezela; berrito bizi nai degu euskal izaera jatorrian.

¡Atzer! beraz nai degu biurtu; ta orretarako ¡Aurrera! diogu indar guziakin; aurrian arkitu dezagun atzian galdu gendubena.

Erri chiki ta aundi, guziyak baturik, euskaldun zintzoak biltzen dira diputazio chit goituen ondotik, berari laguntzeko biar diran egin-kizunetan.

Itz bat bakarra entzuten bada, itz ori euskalduna guzien itza da, guzien gogua, guzien zalia, guzien asmoa.

Itz orren ondotik daude euskaldun guziyag, beñere baño Sutsuago, galdutako eskubideak berenganatzeko.

Gogoratzen gera 1876 garren urteko egun zorigaiztozko aietzaz eta gogorapen orrek indartzen du gure gogoa, berriro ekiteko gure eskubide jatorren alde, len esan degun bezela, euskaldunak biziya bera baño geyago maite duben jabetasun orren alde.

Gora bada biyotzak. Nabaitzen degun ichopen atseginiak chukatu ditzala orain arte isuri ditugun malko saminiak.

Berriro agertu deyela euskal erriko mendi tantayetan, lengo izaera zarren errañu pozgarriya.

Eta euskaldun zintzoak bere eskubideaz jabeturik, mendiik mendi zabaldu dezela bere zorionaren oyartzun atsegina.

L. M. AITZBITARTE

